

V. IRURITAKO MENDI DUATLOIA

1 ARAUDI OROKORRA

1.1 IBILBIDEA

1.1.1 Distantziak 8,8 km (+360 desnibela) korrika eta 16 km (+640 desnibela) bizikletan.

1.1.2 Kirolariak ibilbidea bere osotasunean egin beharko du.

1.1.3 Ibilbidea markatuta egonen da. Trakak webgunean egonen dira kirolprobak.com. Momentu guztian bidegurutzetan dauden antolakuntzako kidei egin beharko zaie kasu, ibilbidean azken orduko aldaketaren bat egongo balitz, antolatzaileek proba hasi baino lehen jakinaraziko dute.

1.2 PARTE HARTZAILEAK

1.2.1 **Bakarkako probak:** Proba hauetan 16 urtetik gorako edonork hartu dezake parte.

1.2.2 **Bikoteak/erreleboak:** Bikoteak sexu berekoak ala mistoak izan daitezke. Bikotekideak ezingo dira aldatu eta bietako batek proba batera joaterik ezingo ez balu, bigarren kideak proba osorik egin beharko luke.

2 PARTEHARTZAILEENTZAKO ARAUDIA

2.1 ERANTZUKIZUN OROKORRA

2.1.1 Parte hartzailearen erantzukizuna da egoera fisiko onean egotea, osasun fisiko gutxiengo bat izatea ta probari aurre egin ahal izateko prestaketa egoki bat izatea.

2.1.2 Parte hartzailearen erantzukisuna da material egokia eta egoera onean izatea proba egin ahal izateko.

2.1.3 Parte hartzaileak arau hauek ezagutu eta errespetatzeko beharra dauka, baita zirkulazio arauak ere, hala nola, proba bakoitzean egongo diren arduradun bakoitzaren gomendioak.

2.1.4 Parte hartzaileak federazionaren lizentziarik eduki beharrik ez du, probak aseguratzen baitu.

2.2 DORTSALAK

Parte hartzaileak, antolatzaileak emandako dortsala, inongo moldaketarik gabe, era egokian erabiltzeko beharra dauka

2.3 PARTE HARTZAILEEN JOKABIDEAK

2.3.1 Lasterketatik erretiratzen den lasterkariak, dortsala kendu eta antolakuntzari adierazteko beharra dauka

2.3.2 Parte hartzaileak beti ingurugiroa errespetatzeko beharra dauka, bertara ezer bota gabe, lasterketa den tokiko txukuntasuna errespetaratzuz.

3 GAINBEGIRATUA ETA KONTROLA

3.1 PERTSONALA

3.1.1 Ambulanzia bere dotazioa eta beharginekin izanen da, lasterketan zehar gertatzen diren ezbeharrei aurre egin ahal izateko

3.2 KRONOMETRAIA

3.2.1 Lasterketaren denbora, irteera ematen denetik, helmuga gurutzatu arteko denbora osoa izango da. Lasterketan zehar dauden transtizioak denboraren barruan sartzen dira.

3.2.2 Parte hartzeilea kronometratze alfonbra gainetik pasa beharko da bere demborak zuzen hartu ahal izateko. Horrela ezingo ez balu, eta egindakoaren larritasunaren arabera zigortzeko erabakia hartu dezake.

4 TRANTSIZIO GUNEAK (BOX-AK)

4.1 Parte hartzaile bakoitzak bere numeroaz definitua dagoen tokia erabil dezake bere materiala uzteko

4.2 Boxetan debekatua dago bizikletan ibiltzea

4.3 Soporteen azpitik pasatzea edo beste parte hartzaileen eremu gainetik pasatzea debekatua dago

4.4 Antolakuntzak esan arte ezingo da boxeetan dagoen materiala jaso.